

TXOSTENA*

DESAGERTZEKO ARRISKUAN
DAUDEN EUROPAKO HIZKUNTZEI ETA
EUROPAR BATASUNeko HIZKUNTZA-
ANIZTASUNARI BURUZKOA
(2013/2007(INI))



EUROPAKO PARLAMENTUKO
KULTURA ETA HEZKUNTZA
BATZORDEA

TXOSTENGILEA: FRANÇOIS ALFONSI
ITZULTZAILEA: ENEKO OREGI

* 645 boto alde, 26 aurka eta 29 abstentzio, bozketan izan ziren 700 diputatuen artean: 2013ko irailaren 11n, Europako Parlamentuak bete-beteko sostengua eman zion Txostenak dakarren Ebazpenari.

EUROPAKO PARLAMENTUAREN EBAZPEN-PROPOSAMENA

DESAGERTZEKO ARRISKUAN DAUDEN EUROPAKO HIZKUNTZEI ETA EUROPAR BATASUNEKO HIZKUNTZA-ANIZTASUNARI BURUZKOA (2013/2007(INI))

EUROPAKO PARLAMENTUAK,

- Ikusirik Europar Batasunaren Tratatuaren 2. artikulua eta 3. artikulua, 3. paragrafoa,
 - Ikusirik Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua, 1. paragrafoa, eta 22. artikulua,
 - Ikusirik Europako Batzordearen Euromosaic azterlana, Europako hizkuntzen desagerpenaren berri ematen duena gaur egun indarrean diren lanabesek ez dituztelako babesten,
 - Ikusirik Kultura-ondare ez-materiala babesteko Unescoren 2003ko urriaren 17ko Kontentzioa, ahozko tradizio eta adierazpideak kontuan hartzen dituen, hizkuntza barne, kultura-ondare ez-materialaren bidez arazatu daitezkeen aldetik,
 - Ikusirik Kultura-adierazpideen aniztasuna babestu eta sustatzeko Unescoren 2005eko Kontentzioa,
 - Ikusirik Unescok argitaratutako Arriskuan dauden Munduko hizkuntzen Atlas, eta
 - Ikusirik Europako Kontseiluaren Europako Toki eta Eskualdeetako Aginteen Biltzarren 2010eko martxoaren 18ko Ebazpena, «Les langues minoritaires: un atout pour le développement régional» (Hizkuntza gutxiak: eskualde-garapenerako aukera) izenburupean (301/2010)¹,
 - Ikusirik Europako Kontseiluaren 12423/2010 Txostena, 1769/2010 Ebazpena eta 1944/2010 Gomendia,
 - Ikusirik 2008ko irailaren 18ko Batzordearen Adierazpena, «Eleaniztasuna: Europarentzat abantaila eta konpromiso partekatua» izenburupean (COM(2008)0566),
 - Ikusirik 2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Gomendia, bizitza osoko ikaskuntzarako gaitasun giltzarri buruz²,
 - Ikusirik Eskualdeen Batzordearen Iritzia, Lisboako Tratatuaren arabera Hizkuntza-gutxiengo historikoen babesari eta garapenera buruz³,
 - Ikusirik 2008ko azaroaren 21eko Kontseiluaren Ebazpena, eleaniztasunari buruzko estrategia europarrari buruz⁴,
 - Ikusirik Europako Kontseiluaren 1992ko azaroaren 5eko Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna,
 - Ikusirik Hizkuntza-eskubideen Nazioarteko Adierazpena (1996),
 - Ikusirik Nazio-gutxiengoaren babesarako Esparru-hitzarmena (1995),
 - Ikusirik bere 2004ko urtarrilaren 14ko Ebazpena, kultura-aniztasuna babestu eta sustatzeari buruzkoa: Europako eskualdeen eta Unesco eta Europako Kontseilua bezalako nazioarteko erakunden zeregina⁵, eta bere 2003ko irailaren 4ko Ebazpena, Europako eskualde-hizkuntzei eta eremu urrikoei buruzkoa, gutxiengoaren hizkuntzak Europar Batasunean hedapenaren eta kultura-aniztasunaren testuinguruan⁶,
 - Ikusirik bere 2003ko urtarrilaren 14ko Ebazpena, toki- eta eskualde-agintek Europaren eraikuntzan duten egitekoari buruzkoa⁷, Europako hizkuntza-aniztasunari dagokiona,
 - Ikusirik bere 2009ko martxoaren 24ko Ebazpena, eleaniztasunari buruzkoa: Europarentzat abantaila eta konpromiso partekatua⁸,
 - Ikusirik 2008ko irailaren 25eko Europako Parlamentuaren Ebazpena, Europako hirugarren sektoreko hedabideei buruzkoa⁹,
 - Ikusirik bere Erregelamenduen 48. artikulua,
 - Ikusirik Kultura eta Hezkuntza Batzordearen txostena (A7-0239/2013),
- A.** Aintzat harturik Lisboako Tratatuak Europar Batasunaren kultura- eta hizkuntza-ondarea bere zabalean babesteko eta sustatzeko helburua indartzen duela;
- B.** Aintzat harturik hizkuntzen eta kulturen aniztasuna Europar Batasunaren funtsezko sortarau dela, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 22. artikuluan finkatzen den bezala: «Batasunak kultura-erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu»;
- C.** Aintzat harturik hizkuntzen aniztasuna herritarren eskubide gisa aitortuta dagoela Oinarrizko



Eskubideen Gutunaren 21. eta 22. artikuluetan eta, ondorioz, hizkuntza bakarra ezarri nahi izatea Batasunaren funtsezko balioak ahultzea eta urratzea dela;

D.Aintzat harturik desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak Europako kultura-ondarearen osagaitzat hartu beharko lirakeela, eta ez helburu politiko, etniko nahiz lurraldetasunekoak bultzatzeko bide gisa;

E.Aintzat harturik Europako hizkuntza guztiek balio eta duintasun bera dutela, bertako kulturen eta zibilizazioen osagai direla eta gizateriaren aberasgarri;

F.Aintzat harturik barne kohesio handiko gizarte eleanitzek, elea-niztasuna modu demokratiko eta jasangarrian kudeatzen dutenek, pluraltasuna areagotzen dutela, irekiagoak direla eta hizkuntza-aniztasun orok dakarren aberastasuna handitzeko ere baliagarriagoak direla;

G.Aintzat harturik hizkuntza guztiek, baita desagertzeko arriskuan daudenek ere, Europar Batasunaren aberastasuna eta aniztasuna eta europar nortasunaren oinarriak indartzen dituzten historiaren, gizartearen eta kulturaren jakinbidea islatzen dutela eta, horregatik, herrialde bakoitzeko hizkuntza-aniztasuna eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak egotea aukera gisa ulertu behar dela, ez zama bat bezala, eta bere horretan bultzatu eta sustatu beharko lirakeela;

H.Aintzat harturik Unescok, arriskuan dauden munduko hizkuntzen bere Atlasean zehazten duela hizkuntza bat desagertzeko arriskuan dela baldin eta honako irizpide zientifikoren bat edo batzuk betetzen ez badi-

tu: hizkuntzaren belaunaldi arteko transmisioa, hiztun kopurua, hiztunen proportzioa biztanleria osoan, hizkuntzaren erabilera esparru publiko eta pribatuetan, hedabide berriekiko egoera, hizkuntza ikasteko eta irakaste-ko materialak egotea, gobernu eta erakundeek hizkuntzarekiko jarrerak eta politikak, ofizialtasuna eta erabilera ofiziala bereziki, hiztunen hizkuntzarekiko jarrera, dokumentazioaren mota eta kalitatea;

I.Aintzat harturik Kultura-adi-erazpideen aniztasuna babestu eta sustatzeko Unescoren 2005eko Konbentzioaren arabera estatu kideek kulturgintza, kultura-ondasunak eta zerbitzuak babesteko neurri ego-kiak hartu ditzaketela, bereziki ekintza, ondasun eta zerbitzu horietan erabilitako hizkuntzei dagozkien neurriak, bai bakoitzaren lurraldean kultura-adi-erazpideen aniztasuna sustatze aldera, bai nazioarteko akordio-esparruan;

J.Aintzat harturik Europako Kontseiluaren Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna, Batasunaren kide diren hamasei estatuk berretsita-koa, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen babeserako erreferentzia dela eta gutxiengo- en babeserakoko tresna, bi hauek izanik estatuek Batasun-ean sartzeko bete behar dituzten Kopenhageko irizpideetan finkatutako puntuatariko bi;

K.Aintzat harturik Unescok dioe-nez Europako herrialde guztie- tan, itsasoz haraindiko Europa mendeko lurraldeetan eta Ba- tasuneko gizatalde herraldarien baitan badi-rela belaunaldi ar- tean ahoz baino transmititzen ez diren hizkuntzak eta, horretaz, desagertzeko arriskuan direla jo behar dela; desagertzeko arris-

kuan dauden Europako zenbait hizkuntza, mugez gaindiko gi- zataldetan mintzatzen direla eta babes-maila desberdinak dituz- tela hiztunak kokatutako estatu kidearen edota eskualdearen arabera;

L.Aintzat harturik, horrela, herrial- de eta eskualde zenbaitetan badi-rela desagertzeko arris- kuan dauden edota desager- tzen ari diren gutxiengo- eta eskualde-hizkuntzak, alboko herrialdeetan ofizialtasuna eta gehiengoa duten bitartean;

M.Aintzat harturik, naturaren aniz- tasun biologikoa bezalaxe, Eu- ropako kulturen eta hizkuntzen aniztasuna gure gizarte- en garapen jasangarrirako beharrez- ko den ondare biziaren osagai direla eta, horregatik, desager- tzeko arriskutik zaindu eta ba- bestu beharra dagoela;

N.Aintzat harturik hizkuntza-aniz- tasunaren errespetuak gizar- te-kohesioa indartzen duela, elkar ulertzea, autoestimua eta irekitasuna areagotuz, eta hiz- kuntza-aniztasunak kulturara- ko irispidea errazten duela eta sormena eta kulturartekotasuna pizten dituela, herrien eta he- rrialden arteko lankidetzaz bul- tzatzeaz gain;

O.Aintzat harturik Lisboako Tra- tatuaren 167. artikulua argi eta garbi adierazten duela «Ba- tasunak estatu kideetako kul- turen loratzea bultzatuko du, beren nazio- eta eskualde-a- niztasunarekiko errespetuaren barruan» eta, beraz, animatzen du ez bakarrik Batasuneko hiz- kuntza-ondarearen aberasta- suna, aniztasun horren zati bat denez, zaindu eta babesteko ekitera, baizik eta baita ondare hori hobetzen eta suspertzen ahalegintzera, estatu kideek garatutako politikez gain;

- P.** Aintzat harturik Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunak hizkuntza ofizialez gain, estatu kideetako hizkuntza ofizialkideak, eskualde-hizkuntzak eta inongo ofizialtasun-mailarik ez duten hizkuntzak ere hartzen dituela;
- Q.** Aintzat harturik desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei buruz ari garenean lurralde jakin batean bakarrik arriskupean dauden hizkuntzak sartzen direla, eremu batean hiztun-kopurua nabarmen behera doanean eta errolda batetik hurrengora egindako estatistikek hitzunen kopurua nabarmen jaitsi dela erakusten dutenean;
- R.** Aintzat harturik estatu kideetako hizkuntza ofizialak arriskuan izan daitezkeela Batasunaren beste eskualde batzuetan;
- S.** Aintzat harturik, zenbait hizkuntzaren egoeraren larriagatik, arreta berezia eskaini beharko litzaikeela suntsitzeko arriskuan dauden hizkuntzei, kulturen eta hizkuntzen aniztasuna onartzuz, jasaten dituzten aurreiritziak aurkatzeko neurriak hartuz eta asimilazio-ikuspegia baztertuz, bai Europa mailan, bai estatuen mailan;
- T.** Aintzat harturik eraginkorra ikasketak ama-hizkuntzan egitea dela;
- U.** Aintzat harturik haurrek ikasketak txiki-txikitatik ama-hizkuntzan eginez eta albo-albo hizkuntza ofiziala ikasiz, hizkuntza gehiago ikasteko ahalmena areagotuko dutela, eta eleantzasuna europar gazteentzat abantailatsu dela;
- V.** Aintzat harturik Europan arriskuan dauden hizkuntzek jasaten duten mehatxua arindu daitezkeela baldin eta bizitza publikoan eta justizia-administrazioan hizkuntza horiek modu proportzionalean tratatzen bada, beti ere berdintasun-arauz eta aniztasunaren mesedetan;
- W.** Aintzat harturik hizkuntza baten biziraupenean eta geroratzean garrantzia handia dutela sarritan eskolaz kanpoko heziketak eta heziteta ez-formalak eta garrantzizkoa dela testuinguru horretan arte-elkarteek eta artistek betetzen duten lekua aitortzea;
- X.** Aintzat harturik desagertzeko arriskuan diren hizkuntzen kontuei ez zaiela behar bezalako arreta berezia eskaini Europako Batzordearen eleantzasunarekiko politiken esparruan; kontuan hartuz azken bi urte anitzeko finantza-esparruetan (2000-2007 y 2007-2013) hizkuntza horientzako europar finantziarioak murrizketa nabarmenak jasan dituela, horren ondorioz hizkuntzon estualdiak areagotuz, eta hurrengo urte anitzeko finantza-esparruan (2014-2020) beste horrenbeste gertatu ez dadin kontu egin behar dela;
- 1.** Eskatzen die Europar Batasunari eta estatu kideei arreta gehiago eskaini diezaiotela desagertzeko arriskuan dauden Europako hainbat hizkuntzak jasaten duten egoera larriari eta konpromiso sendoa har dezatela Batasunaren hizkuntza- eta kultura-ondarearen aniztasun aparta zaintzeko eta sustatzeko, hizkuntzok suspertzeko politika ekintzaille eta handizaleak garatuz eta helburu horretarako arrazoizko aurrekontua bideratuz; gomendatzen du, halaber, politika horien xede izan dadila gizatalde horiek gorpuzten duten hizkuntza- eta kultura-aniztasunaz Europar Batasuneko herritarrak jabetzea; estatu kideak bultzatzen ditu desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzeko ekintza-planak aurkeztera, Europako zenbait hiztun-komunitatetan eskuragarri dauden jarduera onenak partekatzean oinarrituta;
- 2.** Eskatzen die estatu kideetako gobernuari gaitzetsi ditzatela desagertzeko arriskuan dauden hiztun-komunitateen nortasunaren eta hizkuntzaren erabileraren zein horien kultura-erakundeen aurka bideratu diren edo bideratzen diren jarduera guztiak, dela bereizkeriaren bidez, dela derrigortutako zein zeharkako asimilazioaren bidez;
- 3.** Dei egiten die oraindik egin ez duten estatu kideei Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna berretsi eta indarrean jar dezaten; Gutuna, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen babeserako erreferentziazkoa dela adierazten du eta Kopenhageko irizpideetan zehaztutako gutxiengoaren babeserako tresnetariko bat da, Europar Batasunera sartzeko estatuek bete beharrekoa;
- 4.** Eskatzen die estatu kideei eta Batzordeari errespetatu ditzatela Kultura-adierazpideen aniztasuna babestu eta sustatzeko Unescoren 2005eko Konbentzioari atxiki zitzaizkionean hartu zituzten konpromisoak, bai beren lurraldeetan, bai nazioarteko akordioetan;
- 5.** Eskatzen die Batasuneko agintariei gehitu dezatela hizkuntza-aniztasunaren benetako errespetua eta bereziki Europako hizkuntza ez hegemonikoaren babesa Batasunean estatu kide gisa sartzeko estatu guztiek bete beharreko baldintzen artean;
- 6.** Eskatzen die Batzordeari eta estatu kideetako gobernuari



eta eskualdeetako agintariari ezarri ditzatela programak desagertzeko arriskuan dauden hizkuntza-komunitateenganako eta komunitate etnikoenganako tolerantzia, beren hizkuntza- eta kultura-balioekiko errespetua eta gizatalde horiekiko errespetua sustatzeko gizarte;

7. Ohartarazten ditu estatu kideetako gobernuak eta eskualdeetako agintariak kontuan izan dezatela desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza baten biziraupenak hizkuntza hori erabiltzen duen gizataldearen biziraupena eta garapena eskatzen dituela eta, beraz, hizkuntza babesteko politikak abiaraztean kultura eta hezkuntza kontuan hartzeaz gain, ikuspegi ekonomiko eta sozialak era kontuan izan behar direla;
8. Eskatzen dio Europako Batzordeari desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko neurri politiko zehatzak proposatu ditzala; eskatzen die, halaber, Europako Batzordeari eta Kontseiluari Tratatuak aintortzen dizkien eskumenen esparruan, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak eta hizkuntza-aniztasuna babesteko Europar Batasunaren politikak finkatu eta egitarauak planifikatu ditzatela, 2014-2020 epealdirako Batasunaren laguntza finantziariorako tresnak erabiliz, bereziki hizkuntza horiek dokumentatzeko programak eta baita hezkuntza- eta prestakuntza-programak, gizarteratze-programak, gazteria eta kirol arlokoak, ikerketa eta garapena, kultura eta komunikabideen programa, egitura-funtsak (Kohesio-funtsak, FEDER, Europako

Gizarte-funtsa, Europako lurralde-lankidetzak, eta FEADER) eta teknologia berriak, gizar-te-komunikabideak eta plataforma multimediak sustatzeko sortutako tresna eta plataforma guztiak, edukien eta aplikazioen sorkuntzarako laguntzak barne; uste du tresna hauek gizatalde eta eskualde horiez haratagoko ekintza eta egitarau zabalagoetan, kulturaren zein ekonomiaren arloan, erabili behar direla; eskatzen dio Europako Batzordeari abiarazi dezala hausnarketa bat desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzekin lotutako proiektuek aurkitzen dituzten oztopo administratibo eta burokratikoak buruz, eragindako hiztun-komunitateen txikiaren ondorioz;

9. Eskatzen du, atzerapenik egin ezin daitekeenez, babes-ekintzetarako finantziarioa erraz eskuratzekoa izan dadila eta ahalik eta argiena, erabili nahi luketen eragileek epe jakinean eskuragarri izan dezaten arriskuan dauden hizkuntzei modu eraginkorrean laguntzeko;
10. Uste du Europar Batasunak estatu kideei lagundu behar diela eta bultzatu behar dituela desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza ama-hizkuntza gisa haurtzarotik ikastea ahalbidetuko duen hizkuntza-politika bat ezartzera; adierazten du, zientifikoki frogatu den bezala, bi hizkuntza edo gehiago ikastea sustatzea onuragarri litzatekeela haurrentzat eta aurrerago hizkuntza gehiago ikasten lagunduko liekeela, hizkuntza belaunaldi artean geroratzea indartzeaz gain, eta desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen hitzunei laguntza konkretua emango liekeela ahulduta dagoen gunetean be-

launaldi arteko hizkuntza-trasmisioa indarberritzeko;

11. Babesten du arriskuan dauden hizkuntzen irakaskuntza adin guztietako ikasleentzako metodologia egokiekin indartzea, urrutiko irakaskuntza barne, eleaniztasunean eta hizkuntza-pluraltasunean oinarritutako benetako europar herritartasuna garatu dadin;
12. Ezagutzen ditu Batzordearen eleaniztasun-egitarauak; irizten dioproiektugileek egitarau horiek eskaintzen dituzten aukerak baliatu ahal izan beharko litzaketela eta, kontuan harturik desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak bizirautearen alde borrokatzen diren hiztun-komunitateak maiz oso talde txikiak izan ohi direla, eskatzen dio Batzordeari ez ditzala gizatalde horien intereseko egitarauak diru-laguntzetatik salbuetsi finantza-ekarpenaren urriagatik, onuradun-kopuru mugatuagatik edota eragindako eremuaren txikitasunagatik, eta, aitzitik, egitarau horietarako irismena erraztu dezala eta argitaratu ditzala finantziarioa lortzeko baldintzei buruzko orientabideak emanez; eskatzen die estatu kideei desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzetako talde eta komunitate txiki horien bitartekari eta eragile bihur daitezela Batasunaren funtsak baliatu ditzaten, aldi berean gogoraziz hizkuntza-aniztasunerako Europar Batasunaren finantziarioa ez dela aurreikusitako helburutik desbideratu behar, ez eta mehatxupeko hizkuntzak helburu politiko zabalagoak lortzeko erabiltzen dituzten ekintzak bultzatzeko erabili ere;
13. Uste du hizkuntza biziberritzeko politika arnas luzeko ahalegina dela, alor desberdinetako

askotariko ekintza koordinatuen plangintzan oinarritua, bereziki irakaskuntzan (haur eta lehen-hezkuntza direlarik horretarako garrantzikoak, gurasoen hizkuntza-prestakuntzarekin batera), administrazioan, hedabideetako emanaldietan (irradiak eta telebista-kateak sortzeko eta garatzeko aukera barne), artean eta bizitza publikoko alor guztietan. Horrek guztiak epe luzean eskuragarri izango diren baliabideak eskatzen ditu; uste du egitarau horiek lantzea, hiztun-komunitateen arteko jarduera onenak partekatzea eta ebaluazio-prozedurak ezartzea sostengatu beharko lirakeela;

14. Gogorazten du gehien bat ahozkoak diren hizkuntzen normalizazioa lortzeko ahaleginei eutsi beharra;
15. Eskatzen die estatu kideei arreta gehiago jarri diezaiotela eta gehiago lagundu diezaiotela desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei buruzko goi-mailako irakaskuntzari eta ikerketari;
16. Uste du teknologia berriak baliagarri gertatu daitezkeela desagertzeko arriskuan dauden Europako hizkuntzen ezagupena, zabalkundea, irakaskuntza eta biziraupena bultzatzeko;
17. Azpimarratzen du desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak familiaren baitan belaunaldi artean geroratzeak duen garrantzia eta baita hizkuntza horien irakaskuntza sustatzearena ere, beharrezko balitz hezkuntza-sistema berezi baten baitan; horregatik, bultzatzen ditu estatu kideak eta eskualde-agintariak hezkuntza-politikak eta irakasmateriak garatu ditzaten;
18. Uste du garrantzitsua dela hizkuntzak indarberitzeko baztertuta geratu diren hizkuntzak eta gehien bat familia girora mugatuta daudenak gizartearen jendaurrean erabili ahal izatea;
19. Eskatzen dio Batzordeari lan egin dezala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko eta sustatzeko egitarau eta ekimenak sortu dituzten nazioarteko erakundeekin, hala nola Unesco eta Europako Kontseilua;
20. Gomendatzen die estatu kideei arriskuan dauden hizkuntzen bilakaeraren jarraipena egin dezatela, estatuko agintariak bezala hizkuntza propioak dituzten lurraldeetako agintariak, hizkuntza horiek ofizialak izan ala ez;
21. Irizten dio hedabideek, berriek bereziki, zeregin garrantzitsua bete dezaketela desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko orduan, etorkizuneko belaunaldiekiko bereziki; berresten du, gainera, teknologia berriak ere erabili zitezkeela helburu horiek lortzeko;
22. Eskatzen die bereziki tokiko agintariei, hizkuntzak biziberritzeko neurriak hartu ditzatela egoera iraultzeko, azken hiztunaren heriotzak hizkuntza baten desagertzea baitakar eskuarki;
23. Uste du digitalizazioa hizkuntzen desagertzea saihesteko modu bat izan daitekeela; eskatzen die, beraz, tokiko agintariei hizkuntza horietako liburuak eta grabazioak eta baita hizkuntza-ondarearen beste adierazpideak bildu ditzatela eta linean jarri ditzatela herritarren eskura;
24. Proposatzen du nazioarteko komunitateak eta estatu kideek gaitu ditzatela desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen hiztun-komunitateak jabetu daitezkeen beren hizkuntzak erabiltzea eta babestea balio bat dela bai gizataldearentzat berarentzat eta bai Europarentzat ere;
25. Eskatzen dio Batzordeari etengabe babestu dezala, hainbat egitarauen bitartez, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak suspertzeko estatuez gaindiko sareak eta Europa mailako ekimen eta ekintzak, eta Unescok hasitako Arriskuan dauden Munduko hizkuntzen Atlas osatzen laguntzeko beharra azpimarratzen du, haren betikotasuna ziurtatuz, eta hizkuntza bakoitzaren egoeraren eta desagertzea saihesteko ezarritako politiken emaitzaren jarraipena egitea ahalbidetuko duen adierazle homogeneo sorta bat garatzeko;
26. Eskatzen dio Batzordeari Euromosaik azterlanarekin abiatutako ikerketari jarraitu diezaiola eta zerrendatu ditzala Europako hizkuntzaren baten desagertze-arriskua nabarmen gutxitu duten prebentzio-neurrien adibideak; gomendatzen du, hizkuntza-komunitateen artean ezagutza, trebetasun eta jarduera onenak elkartrukatzea bultzatze aldera, Europako hizkuntza-sareek aztertu ditzatela, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak zaintzeko, babesteko eta suspertzeko estatu kideek abian jarritako politikak, eta Batzordeak gomendioak egin ditzala horretan oinarrituta;
27. Eskatzen dio Batzordeari bultzatu dezala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen irakaskuntzari eta indarberitzeari



eta Europan herritar elebidun eta eleanitzak izateak dakartzan onura kognitiboak eta gizartezkoei buruzko ikerketa;

- 28.** Eskatzen die estatu kideei, baldin eta oraindik egin ez badute, izenpetu eta berretsi ditzatela Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna eta 1995eko Nazio-gutxiengoaren babeserako Esparru-hitzarmena;
- 29.** Eskatzen dio Batzordeari Batasunean desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babesteko neurri posibleak aztertu ditzala;
- 30.** Eskatzen dio Batzordeari lagundu ditzala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzen lagunduko duten proiektu pilotuak eta hiztun-komunitateek eurek landutako ekintza-planak;
- 31.** Uste du Batasunak hizkuntza-aniztasuna bultzatu behar duela hirugarren herrialdeetako harremanetan eta, bereziki,

Europar Batasunean sartu nahi dutenekikoetan;

- 32.** Eskatzen dio Batzordeari gogoeta egin dezala desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak babestu, zaindu eta suspertzeko Europa mailako neurri berezituak hartzeko aukeraz;
- 33.** Uste du eleaniztasuna sustatzearekin lotutako egitarauak funtsezko direla auzo-herrialdeen estrategia politikoetarako edota Europar Batasunean sartzeko hautagai eta hautagai potentzial direnetarako;
- 34.** Uste du Batzordeak hizkuntzak indarbertzeari emandako laguntzak arreta berezia eman behar diela hedabide digitalen esparruko ekimenei, gizarte-sareak barne, belaunaldi gazteenak desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen alde konprometitu daitezzen;
- 35.** Uste du Batzordeak arreta jarri behar diola estatu kide eta eskualde batzuen politikek

arriskuan jartzen ari direla beren lurraldeetako hizkuntzen biziraupena, Europa mailan arriskuan ez badaude ere;

- 36.** Ohartarazten du badirela webgune baliagarriak desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sustatzeko proiektuetarako finantzazioa eskaintzen duten Europar Batasunaren egitarauetara buruzko informazioa zabaltzeko, eta eskatzen dio Batzordeari deialdi berri bat zabaldu dezala webgune horiek 2014-2020 epealdirako egitarauetara eguneratzeko eta informazioa areagotu dezala, bereziki, dagokien hiztun-komunitateei bideratuta;
- 37.** Agindua ematen dio presidenteari Ebazpen hau Kontseiluari eta Batzordeari helarazi diezaiela, eta baita estatu kideetako gobernu eta parlamentuei ere.

BATZORDEKO AZKEN BOZKETAREN EMAITZA

Onarpen-data	2013.6.18	
Azken bozketaren emaitza	+: -: 0:	30 0 0
Azken bozketan zeuden kideak	Zoltán Bagó, Lothar Bisky, Piotr Borys, Jean-Marie Cavada, Silvia Costa, Santiago Fisas Aixela, Lorenzo Fontana, Mary Honeyball, Petra Kammerevert, Emma McClarkin, Emilio Menéndez del Valle, Marek Henryk Migalski, Katarína Neved'alová, Doris Pack, Chrysoula Paliadeli, Monika Panayotova, Gianni Pittella, Marie-Thérèse Sanchez-Schmid, Marietje Schaake, Marco Scurria, Hannu Takkula, László Tóké, Helga Trüpel, Sabine Verheyen, Milan Zver	
Azken bozketan zeuden ordezkariak	François Alfonsi, Liam Aylward, Ivo Belet, Nadja Hirsch, Iosif Matula, Georgios Papanikolaou, Kay Swinburne, Inês Cristina Zuber	
Azken bozketan zeuden ordezkariak (187. art., 2. lerr.)	Vasilica Viorica Dăncilă	

NOTAK:

1. <https://wcd.coe.int/ViewDoc.jsp?id=1671947&Site=DC>
2. EGUNKARI OFIZIALA L 394, 2006/12/30ekoa, 10. or.
3. EGUNKARI OFIZIALA C 259, 2011/09/02koa, 31. or.
4. EGUNKARI OFIZIALA C 320, 2008/12/16koa, 1. or.
5. EGUNKARI OFIZIALA C 92 E, 2004/04/16koa, 322. or.

6. EGUNKARI OFIZIALA C 76, 2004/03/25ekoa, 374. or.
7. EGUNKARI OFIZIALA C 38 E, 2004/02/12koa, 167. or.
8. EGUNKARI OFIZIALA C 117 E, 2010/05/06koa, 59. or.
9. EGUNKARI OFIZIALA C 8 E, 2010/01/14koa, 75. or.

